

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 144/2024 apirilaren 15a. Arabako turismo-sektoreko irabazi-asmorik gabeko erakundeen jarduera-gastuei aurre egiteko laguntzen deialdia onartzen duen martxoaren 19ko 106/2024 Foru Aginduaren eranskineko hutsen zuzenketa onestea

Martxoaren 19ko 106/2024 Foru Aginduaren bidez, onetsi zen Arabako turismo sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeetan izandako jarduera gastuei aurre egiteko laguntzen deialdia.

Argitaratu ondoren, akats bat antzeman da estekan, deialdiaren 8.1 artikulua lehenengo paragrafoan.

Ondorioz, beharrezkotzat jotzen da deialdia aldatzea, eskaerak elektronikoki aurkezteko bera-riazko izapiderako esteka zuzena ager dadin.

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Aldatzea foru agindu honen eranskinean zehazten diren Arabako turismo sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeen jarduera gastuei aurre egiteko laguntzen deialdia onesten duen martxoaren 19ko 106/2024 Foru Aginduaren eranskinaren 8. artikulua 8.1 apartatua. Honela geratuko da idatzita:

Bigarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 15a

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

106/2024 FORU AGINDUAREN ERANSKINAREN ZENBAIT APARTATU ALDATZEA

8. artikulua 8.1. apartatua.– Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

8.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen izapide espezifikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-actividades-promocion-turistica>). Dena dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa ere aplikatuko da.

AFAren egoitza elektronikoa zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKQ sistemaren bidez, hemen: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoa: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>.